

ERANSKINAK

1. eranskina: “Irakasleak antzematen dituen adierazgarri bereziak”

<u>ARLO SOZIALEAN</u>	<u>ARLO AKADEMIKOAN</u> <u>(KLASEAN)</u>	<u>JOKABIDEETAN</u>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bakarrik egoten da patioan askotan, bakarrik jolastuz edo patiotik ibiliz. ▪ Batzuetan beste kideek egiten dutena imitatzen saiatzen da. ▪ Ez dauka lagun minik edo jolasean ibiltzeko lagun talderik. ▪ Klaseko kide askoren izenak ez dakizki. ▪ Askotan liskarrak izaten ditu klase-kideekin gaizki-ulertuen ondorioz. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikaskuntza estilo desberdina dauka. ▪ Erraztasunez despistatu egiten da. ▪ Ez dauka organizaziorik lan egitean. ▪ Bai bere klaseko mahaia bai bere motxila guztiz desordenatuta egon ohi dira. ▪ Askotan ez du behar duen materiala klasera eramaten, etxean ahaztuta uzten du. ▪ Letra txarra eta ulertzeko oso zaila izaten du; idazketarako zailtasunak. ▪ Bere koadernoak zikin eta desordenatuta egoten dira. ▪ Gai bat bere interesekoa ez denean ez du arretarik jartzen, baina beste gai batzuen inguruan pila bat daki. ▪ Porrotari beldurra. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gauzak berak nahi duen moduan gertatzen ez direnean asko haserretu egiten da. ▪ Enpatia eskasa dauka. ▪ Askotan ez du beste norbaitek haiek zuzentzea jasaten. ▪ Gai konkretu batzuen inguruan zentratuta ibiltzen da beti. ▪ Hitz egiteko modu berezia dauka. ▪ Frustrazioaren aurrean oso tolerantzia eskasa dauka. ▪ Errutinak gustuko ditu. ▪ Emozioak kontrolatzeko orduan zailtasunak izan ditzake.

Smith et al. (2005: 5), Coto (2013: 12-13) eta Attwood (2007: 26, 370)-ren ideietan oinarrituta.

2.eranskina: “Irakasleek betetako inkesta”

ASPERGER SINDROMEARI BURUZKO GALDETEGIA/INKESTA

Inkesta honen bitartez, Lehen Hezkuntzako irakasleek Asperger sindromearen inguruan dituzten jakintzak ezagutu nahi dira, ume hauek eskola testuinguruan jasotzen duten erantzuna aztertzeko. Eskertzen da galdetegia betetzerako orduan zuen zintzotasuna eta lan honi eskainitako denbora. Zuen parte-hartzea laguntza handikoa da. Eskerrik asko!

Galdetegia:

Adina: _____

Sexua: _____

Lanean urte kopurua: _____

Marka ezazu gurutze (X) batekin zurekin bat datorren laukia:

1= Guztiz desados

2= Nahiko desados

3= Hala-hola

4= Nahiko ados nago

5= Guztiz ados nago

	1	2	3	4	5	IRUZKINAK
1. Asperger sindromea “Garapenerako Nahasmen Orokorraren” kategorian sartzen da.						
2. Gurasoen herentzia genetikoak ez dauka inolako eraginik seme-alabek Asperger sindromea pairatzeko aukeretan.						
3. “Poztasuna sentituko nuke gelan Asperger sindromedun ikasle bat izango banu, esperientzia lortzeko baliagarria izango litzaidakeelako”.						

4. "Ikasleari ahalik eta eskola-bizitza egokiena izaten lagunduko nioke".						
5. Taldean lan egiteko zailtasunak dituzte.						
6. Ume hauek oldarkorrak izaten dira.						
7. "Ikasturte berri baten hasieran gelan Asperger sindromedun ikasle bat izango dudala jakingo banu, urduri sentituko nintzateke".						
8. "Asperger sindromedun ikasleari behar duen erantzuna ematerako orduan, beste profesionalengandik laguntza jasotzen ahaleginduko nintzateke.						
9. Mugimendu estereotipatua eta errepikatzailea izan ohi dute.						
10. Asperger sindromea gurasoek eragin dezakete haurrari etxean ematen zaion heziketarekin.						
11. Erraztasunez antzematen dituzte gainerako pertsonen sentimenduak eta emozioak, norberarenak besteei jakinarazteko erraztasuna ere erakutsiz.						
12. "Horrelako ikasle bat gelan edukitzekotan, sindromeari buruz ikasiko nuke, umeari erantzun egokia emateko gaitasuna edukitzeko".						
13. "Gelan Asperger sindromedun ikasle bat izatekotan, kezkatuta/noraezean sentituko nintzake umeak izango dituen beharreatatik eta eman behar izango diodan erantzun bereziagatik".						
14. Sozializazio arloan, pertsonetikiko kontaktua eta erlazioak ekiditen dituzte.						
15. Komunikazioan eta hizkuntza sozialki modu egokian erabiltzerakoan zailtasunak dituzte.						

16. Asperger sindromea gaixotasun bat da.						
17. Asperger sindromea duten ikasleek gainerakoen baino koziante intelektual baxuagoa izaten dute.						
18. “Deseroso sentituko nintzateke gelan Asperger sindromea duen ikasle bat izanda”.						
19. “Asperger sindromea duen ikaslearentzako estrategia bereziak erabiltzeko ahalegina egingo nuke”.						
20. Ume hauek interes konkretuak izaten dituzte, horiei buruz denbora luzean eta modu obsesiboan hitz egitera helduz.						
21. Haserrealdi neurrigabeak izaten dituzte hainbatetan.						
22. Asperger sindromea senda daiteke.						
23. “Asperger sindromea duen ikasle bati laguntza berezia eskaintzeko pozik egongo nintzateke”.						
24. Asperger sindromea duten ikasleentzat irakaslea ez da gainerako umeentzat bezain beharrezkoa eta garrantzitsua.						
25. “Asperger sindromea duen ikaslearekin jokatzekoan pazientzia eta maitasun gehiago erakutsiko nuke, ikaslearen ongizatea bilatzeko”.						
26. Metaforak, hitz jokoak eta ironiak haien gustukoak izaten dira.						
27. Errutinek eta aldaketa ezak aspertu egiten dituzte.						
28. Irakaslearen laguntza eduki arren, Asperger sindromea duten ikasleek ez						

dute ikaskuntzan aurrera egitea lortuko.						
29. “Asperger sindromea duen ikasle batekin zelan jokatu jakin dut (horrelako ikasleren bat izatekotan), edo jakingo nuke”.						
30. Haien hizkuntza berezia izan ohi da, hizkuntza formalegia eta tonu eta erritmo bitxiak erabiltzen baitituzte.						
31. Asperger sindromea sozializazioan, komunikazioan, kognizioan eta sentsazioetan oztopoak eragiten dituen garapenaren minusbaliotasun bat da.						
32. Hizkuntzaren garapen atzeratua izan ohi dute.						

AMAIERAKO GALDERAK

Asperger sindromeari buruzko nire formakuntzari dagokionez...

- Uste dut sindromeari buruzko informazio eta jakintza nahiko dudala.
- Ez dut sindromea ondo ezagutzen, baina ez dut uste ezinbestekoa denik.
- Ez dut sindromea ondo ezagutzen, baina egoera aldatu beharko litzatekeela uste dut sindromea ezagutzea garrantzitsua suertatzen delako.
- Bestelakoak: _____

Nola lortu duzu Asperger sindromearen inguruko ezagutza?

- Nire kabuz horri buruzko informazioa bilatu dut.
- Sindrome honetan adituek formakuntza eman didate.
- Inoiz ez dut sindrome honi buruzko informaziorik jaso.

□ Bestelakoak: _____

Asperger sindromea duen ikasleren batekin esperientzia izatekotan, nolakoa izan da esperientzia hori?

Beste edozein iritzi, esperientzia edo dena delakoa gehitu nahi baduzu, hemen daukazu horretarako espazioa:

3.eranskina: “Ikastetxeek betetzeko baimena-orria”

Zuzendari agurgarria,

Tamara Castro García naiz, EHU-ko Lehen Hezkuntzako graduako ikaslea. Aurten, 4. mailan nagoenez gero, nire Gradu Amaierako Lana prestatzen ari naiz, “Asperger sindromea”-ren inguruan hain zuzen ere. Horrela, lanean aurrera egiteko irakasleren batek sindrome honen inguruko inkesta labur bat erantzutea beharko nuke, eta horretarako baimena eskatzeko jotzen dut zugana.

Inkesta hauek, jakina, anonimoak izango dira eta lortzen diren emaitzak guztiz konfidentzialki mantenduko dira (Datu Babespena 15/1999 Lege Organikoa jarraituz), modu honetan, etika-arau guztiak errespetatuz.

Eskertuko nuke zuen parte-hartzea, nire lana garatzeko laguntza handia izango litzateke eta. Horrela, parte hartzen duten irakasleentzat bost minutuko lana suposatuko du eta klase ordutegitik kanpo egingo da, noski.

Zuen erantzunaren zain, eskerrik asko aldeztatik eta barkatu eragozpenak.

Tamara Castro García (EHU-ko ikaslea)

Nik, ikastetxe honen zuzendari lez, baimena ematen dut eskolako irakasleek boluntarioki datu-hartze honetan parte har dezaten. Eta horretarako, paper hau sinatzen dut (Lekua), (urtea)-ko (hilabetea)-ren (eguna)-ean.

(Sinadura edo eskolako zigilua)

4. eranskina: “Inkestaren 32 itemetan lortutako emaitzak”

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 16 irakasleri burututako inkestaren bidez lortutako emaitzak azaltzen dira. Horretarako, galdetegiaren lehenbiziko 32 itemetan lortutako emaitzak aztertzeko, hurrengo taulan 1etik 5era (1 “gutziz desados”, 2 “nahiko desados”, 3 “hala-hola”, 4 “nahiko ados” eta 5 “gutziz ados” direlarik) maisu eta maistrek emandako erantzunen ehunekoak adierazten dira.

	1	2	3	4	5
1. Asperger sindromea “Garapenerako nahasmen orokorraren” kategorian sartzen da.	%6.3	-	-	%56.3	%31.3
2. Gurasoen herentzia genetikoak ez dauka inolako eraginik seme-alabek Asperger sindromea pairatzeko aukeretan.	%6.3	%18.8	%18.8	%31.3	%18.8
3. “Poztasuna sentituko nuke gelan Asperger sindromedun ikasle bat izango banu, esperientzia lortzeko baliagarria izango litzaidakeelako”.	%12.5	%18.8	%37.5	%31.3	-
4. “Ikasleari ahalik eta eskola-bizitza egokiena izaten lagunduko nioke”.	-	-	-	%18.75	%81.25
5. Taldean lan egiteko zailtasunak dituzte.	-	-	%18.8	%37.5	%43.8
6. Ume hauek oldarkorrak izaten dira.	%12.5	%12.5	%37.5	%31.3	%6.3
7. “Ikasturte berri baten hasieran gelan Asperger sindromedun ikasle bat izango dudala jakingo banu, urduri sentituko nintzateke”.	%6.3	%12.5	%25	%12.5	%43.8
8. “Asperger sindromedun ikasleari behar duen erantzuna ematerako orduan, beste profesionalengandik laguntza jasotzen ahaleginduko nintzateke.	-	-	-	%6.3	%93.8

9. Mugimendu estereotipatua eta errepikatzailea izan ohi dute.	-	%25	%31.3	%37.5	%6.3
10. Asperger sindromea gurasoek eragin dezakete haurrari etxean ematen zaion heziketarekin.	%18.8	%12.5	%6.3	%31.3	%31.3
11. Erraztasunez antzematen dituzte gainerako pertsonen sentimenduak eta emozioak, norberarenak besteei jakinarazteko erraztasuna ere erakutsiz.	%43.8	%43.8	-	-	%6.3
12. “Horrelako ikasle bat gelan edukitzekotan, sindromeari buruz ikasiko nuke, umeari erantzun egokia emateko gaitasuna edukitzeko”.	-	-	-	%25	%75
13. “Gelan Asperger sindromedun ikasle bat izatekotan, kezkatuta/noraezean sentituko nintzake umeak izango dituen beharregatik eta eman behar izango diodan erantzun bereziagatik”.	%6.3	%6.3	%25	%18.8	%43.8
14. Sozializazio arloan, pertsonetikiko kontaktua eta erlazioak ekiditen dituzte.	%6.3	%18.8	%12.5	%62.5	-
15. Komunikazioan eta hizkuntza sozialki modu egokian erabiltzerakoan zailtasunak dituzte.	-	%12.5	%12.5	%50	%25
16. Asperger sindromea gaixotasun bat da.	%37.5	%18.8	%18.8	-	%12.5
17. Asperger sindromea duten ikasleek gainerakoek baino koefiziente intelektual baxuagoa izaten dute.	%50	%25	%6.3	-	%12.5
18. “Deseroso sentituko nintzateke gelan	%43.8	%18.8	%18.8	%12.5	-

Asperger sindromea duen ikasle bat izanda”.					
19. “Asperger sindromea duen ikaslearentzako estrategia bereziak erabiltzeko ahalegina egingo nuke”.	-	%12.5	-	%25	%62.5
20. Ume hauek interes konkretuak izaten dituzte, horiei buruz denbora luzean eta modu obsesiboan hitz egitera helduz.	%6.3	-	%18.8	%37.5	%37.5
21. Haserrealdi neurrigabeak izaten dituzte hainbatetan.	%6.3	%18.8	%50	%18.8	%6.3
22. Asperger sindromea senda daiteke.	%50	%31.3	%12.5	-	%6.3
23. “Asperger sindromea duen ikasle bati laguntza berezia eskaintzeko pozik egongo nintzateke”.	-	-	%6.3	%43.8	%50
24. Asperger sindromea duten ikasleentzat irakaslea ez da gainerako umeentzat bezain beharrezkoa eta garrantzitsua.	%75	%6.3	%12.5	-	%6.3
25. “Asperger sindromedun ikaslearekin jokatzekoan pazientzia eta maitasun gehiago erakutsiko nuke, ikaslearen ongizatea bilatzeko”.	-	-	%12.5	%37.5	%50
26. Metaforak, hitz jokoak eta ironiak haien gustukoak izaten dira.	%68.8	%31.3	-	-	-
27. Errutinek eta aldaketa ezak aspertu egiten dituzte.	%31.3	%18.8	%18.8	%6.3	%25
28. Irakaslearen laguntza eduki arren, Asperger sindromea duten ikasleek ez dute ikaskuntzan aurrera egitea lortuko.	%62.5	%18.8	%6.3	%6.3	-

29. “Asperger sindromea duen ikasle batekin zelan jokatu jakin dut (horrelako ikasleren bat izatekotan), edo jakingo nuke”.	%6.3	%6.3	%43.8	%37.5	%6.3
30. Haien hizkuntza berezia izan ohi da, hizkuntza formalegia eta tonu eta erritmo bitxiak erabiltzen baitituzte.	%12.5	%12.5	%31.3	%18.8	%18.8
31. Asperger sindromea sozializazioan, komunikazioan, kognizioan eta sententzioetan oztopoak eragiten dituen garapeneren minusbaliotasun bat da.	%25	%12.5	%25	%25	%12.5
32. Hizkuntzaren garapen atzeratua izan ohi dute.	%31.3	%12.5	%43.8	%12.5	-

5. eranskina: “Inkestaren azken bi galderetan irakasleek emandako erantzunak”.

Asperger sindromea duen ikasleren batekin esperientzia izatekotan, nolakoa izan da esperientzia hori?

- *“Ume hauek, besteak bezala, desberdinak dira haien artean”.*
- *“Alde batetik aberasgarria izan zen niretzat esperientzia, baina beste alde batetik, frustrazioa sorrarazten zidan egoerak: ez daudelako behar beste giza-errekurtso eskoletan eta tutoreak, nik, baldeatu behar izaten nituelako Asperger ikaslea, klasean zeuden ikasle-atzeratuak behar zuten laguntza ematen, klaseko demandak...; gure ordutegi-lektiboa oso dentsoa delako ezin nuen materiala egokitu berarentzat”.*
- *“Ona, asko ikasi dut. Asperger guztiak ez dira berdinak, bi ezagutu ditut eta biak zeharo ezberdinak izan dira. Behar ezberdinak zituzten, batekin balio zuena bestearekin ez. Formakuntza oso inportantea izan da eta irakaslearen jarrera ere”*
- *“Hasieran kostatzen da, baina denbora igaro ahala aurrerapenak ikusten dituzu. Inportantea da umea ezagutzea, ezaugarriak, beharrak... eta erantzun egokia ematea”.*
- *“Esperientzia oso handia ez da izan, haien tutorea ez nintzen eta. Pasilloetan, patioan eta hainbat ekintzetan haiekin egon naizenean, kontu handiz ibili naiz, “beldur”, ondo ezagutzen ez nituen eta haiek ere ez ni ez ninduten ezagutzen eta”.*
- *“Aberasgarria, gurasoen laguntza handia izan dut eta UPIko Psikiatrarena ere”.*
- *“Oso positiboa, asko ikasi dut, baina batekin ikasten duzuna ez zaizu balio guztientzat, oso ezberdinak baitira”.*
- *“Orokorrean nahiko positiboak izan dira, eta familiarekiko harremanak nahiko estuak”.*

Beste edozein iritzi, esperientzia edo dena delakoa gehitu nahi baduzu, hemen daukazu horretarako espazioa:

- *“Irakasleok prest gaude bai asperger kasuak edo beste batzuk gure geletan izaten, aberasgarriak direlako bai guretzat bai ikasleentzat. Ez gaude prest gure*

lan baldintzak direla eta, eskola publikoaren lan-baldintzak direla eta, guregan leporatzen dena, eta exijitu dena aurrera ateratzen”.

- *“Ez da erraza, hasieran beldur sentitzen duzu, baina ezagutuz joan ahala, nire buruarekin ziurtasuna eta haiekin harreman ona lortu ditut. Esperientziak merezi du, bai niretzat bai gelakideentzat”.*
- *“Asperger sindromea izateak ez zaitu hori berori duten besteen berdin bihurtzea, eta bakoitza mundu bat garenez, sindromeduna ala ez, aspektu orokor batzuk identifikatzen diren arren, gero norbanakoa bere zehaztasunean aztertu behar da eta era horretan lan egin berarekin, etiketei kasu gehiegirik egin gabe”.*
- *“Umearen beharretara ahalik eta gehien egokitzen saiatuko nintzateke, baina imajinatzen dut ez dela erraza izango, ume guztiak desberdinak direlako eta suposatzen dut sindrome hau duten umeak ere oso desberdinak direla haien artean”.*

6. eranskina: “Asperger sindromea duten ikasleekin jokatzeko estrategiak”

Hurrengo lerroetan arlo desberdinetan dituzten oztopoak gainditzeko proposamen batzuk burutu egiten dira, horiek modu labur eta argian adieraziz, betiere aipatzen diren adituen ideiei jarraituz:

- Gelan erabiltzen den **hizkuntza nabarmenki sinplifikatzea**. Garrantzitsua da umearekin erabiliko den hizkuntza erraza, sinplea eta konkretua izatea (Smith et al., 2005), ikasleak ulermen arazorik ez izateko.
- Ikasleak jarduera desberdinak burutzeko aurkezten dituen zailtasunei aurre egiteko, oso baliagarria da **ariketak urrats txikiagoetan banatzea** (Márquez, 2014), izan ere, haurra ez da gehiegi despistatuko edo galduko ekintzan zehar eta jarduera behar bezala garatzeko aukera izango du.
- Burutu behar dituzten ekintzen **urratsen zerrendak** (erdaraz “*Tarjetas de instrucciones escritas*”) direlakoak, oso lagungarriak egiten zaizkie, beharrezkoak izanez gero egin beharrekoa argitzeko **marrakiaz** gehituz (Lord, 1999; Coto, 2013) (Ikus 7. eranskina).
- Oso baliagarria izaten da umeak klaseko ordutegi zehatz bat edukitzea, baita irakasgai bakoitzean erabili behar izango duen materialen zerrenda bat burutzea eta hura une oro eskuragarri izatea ere (López, 2008) (Ikus 8. eranskina).
- Taldeka lan egiteko dituzten zailtasunak murrizteko, erabilgarria da **irakasleak berak taldeak egitea** (ume hauek baztertuta ez gelditzeko edota irakasleak ikasle guztien artean enpatikoenak hautatzeko) (Coto, 2013), eta Chanca & Trelles-ek (2009) eta Márquez-ek (2014) proposatzen duten moduan, **hasieran ikaslea talde txikietan lanean jartzea**, pixkanaka lan talde handiagoetan murgilduz.
- Haur hauen motibazioa ahalik eta gehien pizteko, gehien azpimarratzen den proposamena da ahal den neurrian **ikaslearen interesgunea erabiltzea** (Eusko Jaurlaritza, 2002; Márquez, 2014).
- Azterketek Asperger Sindromea duten umei suposatzen dizkieten zailtasunei aurre egiteko, enuntziatuak formulatzeko modua ondo kontrolatu eta asko idaztea eskatzen ez duten azterketak proposatzeaz gain, **ikusizko-adierazgailuak** erabil daitezke, horien bidez umeak jarduera bakoitza zein

denbora tartean burutu behar duen argiago edukiko baitu (Coto, 2013; Smith et al., 2005) (Ikus 9. eranskina).

- Umeari bere denbora librean antolatzen laguntzeko, **Script**-ak erabiltzea proposatzen da. Horien bitartez ikasleei egoera konkretuetan aritzeko jarraitu beharreko pausuak ematen zaizkie zerrendatuta eta era honetan haurrak egoera sozial desberdinetan zelan jokatu ikasiz doa (García & Jorreto, 2005). (Ikus 10. eranskina).
- Asperger sindromea duten hurrek emozioak antzeman edota azaleratzeko, laguntza eskaini behar zaie emozioen inguruko ezagutzak lortzen joateko (Eusko Jaurlaritza, 2002), horretarako tresna **ikusizko-adierazpenak** (Chanca & Trelles, 2009) izan daitezkeelarik, esaterako marrazkiak edo argazkiak (Ikus 11. eranskina).
- Umeek une bakoitzean sentitzen duten emozioaren gradua zein den nabaritu eta hura modu egokian kontrolatu ahal izateko, Coto (2013) eta Barceló (2015) bezalako autoreek “**Emozioen termometroa**”-ren teknika (Ikus 12. eranskina) erabiltzea proposatzen dute. Honek emozio baten gradu desberdinak irudikatu egiten ditu eta hori erabiliz, umeak une bakoitzean sentitzen duen emozioaren maila markatu ahal izango du.
- Ahalik eta **inguru egonkorrena bermatzen saiatu** beharra dago, ahal den neurrian egunerokotasunean aldaketarik ez burutuz (Equipo deletrea, 2004). Gainera, umeak suerta daitezkeen **aldaketetarako alde aurretik prestatzea** garrantzitsua da (Lord, 1999; Smith, Adreon & Gilitz, 2008), honek hainbeste antsietate eta estres ez sentitzen lagunduko baitie. Horretarako, ikusizko-adierazpenez lagundutako azalpenez gain, oso baliagarriak izaten dira Eusko Jaurlaritza-k (2002) azpimarratu bezala, bideoak, grabazioak edota argazkiak, umeak biziko duen egoera desberdina ezagutzeko eta horretara ohitzen joateko.
- Asperger sindromea duten umei gainerako pertsonekin **erlazionatzen irakatsi behar** zaie (Martín, 2006), eta horretarako “Istoria sozialak” erabil daitezke, hau da, umearengandik hurbil dauden errealitateko egoera sozialak kontatzen dituzten istorioak (De la Iglesia eta Olivar-rek, 2008); Horien bidez, egoera sozialak deskribatzen dira, suerta daitezkeen emozioak, sentimenduak, jokatzeko moduak... azaltzen dira eta umeari adierazi egiten zaio nola jokatu beharko litzateke horrelako egoeretan (Chanca & Trelles, 2009).

- **“Role-playing”** teknika erabiltzeak onura handiak eragiten dizkie Asperger sindromea duten umeei (De la Iglesia & Olivar, 2008; Ojea & Diéguez, 2011). trebetasun sozialak eskuratzen jarraitzeaz gain, haurrek ikasitako trebetasunak praktikan jartzeko (Rojas & Diaz-Sibaja, 2013).
- Garrantzitsua da umeari modu argian azaltzea momentu guztiak ez direla egokiak bere gustuko gaiei buruz aritzeko, eta hori ulertzen eta barneratzen laguntzeko **“Boteredun txartelak”** erabiltzea baliagarria izan daiteke (Ikus 13. eranskina). Smith et al.-ek (2005) azaldu bezala, estrategia hau ikusizko-laguntza bat da, haurrari arlo desberdinak ulertzen lagunduko diona, horretarako bere interesgunea erabiliz.

7.eranskina: “Tarjetas de instrucciones escritas”

Demagun ikasleei hurrengo ariketa planteatzen zaiela gelan indibidualki egiteko:

“Irakur ezazu hurrengo testutxoa eta azpimarratu aurkitzen dituzun izenondo guztiak. Gainera, borobildu izenondo horrek zein izenari egiten dion erreferentzia. Bukatzeko, izenondo bakoitzarekin asma ezazu esaldi bat.

Mikelek alkandora urdin bat erosi nahi du. Horregatik, amarekin erosketak egitera joan da eta dendara sartu bezain laster, arropa polit pila bat ikusi du. Dena asko gustatzen zitzaion, baina amak gogorarazi dio alkandora dotore bat erostera joan direla. Beraz, dendan lan egiten duen neska altuarengana hurbildu eta behar dutena azaldu diote. Dendariak alkandora urdin bat eman dio Mikeli hura frogatzeko, baina zoritzarrez txikiegia zen. Neskak, penaz adierazi die ez zuela beste alkandorarik momentu hartan, eta beraz Mikel triste dendatik atera da, ez baitu arropa berririk erosteko aukerarik izan! A ze zorte txarra!”.

ARIKETAN EGIN BEHARREKOA:

1. TESTUA ONDO IRAKURRI



2. TESTUAN AURKITZEN DITUZUN IZENONDO GUZTIAK AZPIMARRATU.



3. BOROBILDU TESTUAN AURKITU DITUZUN IZENONDO HORIEK ZEIN IZENARI EGITEN DIOTEN ERREFERENTZIA.



4. AZPIMARRATU DUZUN IZENONDO BAKOITZAREKIN ESALDI BAT ASMATU.

(Lord, 1999; Coto, 2013 –etik moldatua)

8.eranskina: “Ordutegia eta irakasgaietarako materialen zerrenda”

Ikasleari emateko ordutegia

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9.00-9.45	EUSKARA	MATEMATIKA	INGELESA	EUSKARA	EUSKARA
9.45-10.30	MUSIKA	INGURUNE	EUSKARA	MATEMATIKA	INGURUNE
10.30-11.15	INGELESA	HF	MATEMATIKA	GAZTELANIA	MATEMATIKA
11.15-11.45	ATSEDENALDIA				
11.45-12.45	MATEMATIKA	EUSKARA	GAZTELANIA	HF	ERLIJIOA/BIE
15.00-16.00	INGURUNE	GAZTELANIA		INGURUNE	TUTORETZA
16.00-16.45	GAZTELANIA	HERRITARTASUNA		INGELESA	PLASTIKA

*Ordutegiak aldaketak izan ditzake

Irakasgai bakoitzerako materialen zerrenda

MATEMATIKA KLASERAKO MATERIALA

1. Matematika koadernoak
2. Matematika liburua
3. Estutxea
4. Agenda
5. Kalkulagailua

MUSIKA KLASERAKO MATERIALA

1. Musika liburua
2. Musika koadernoak
3. Partituren liburuxka
4. Pentagramen koadernoak
5. Estutxea
6. Agenda
7. Txirula

(López-etik moldatua, 2008)

9.eranskina: “Denboraren erabilerarako ikusizko markatzaileak”



(Coto-tik moldatua, 2013)

10.eranskina: “Script-ak”

Denbora librearen antolaketa

1. *PATIORA JAISTEN NAIZ GAINERAKO UMEEKIN BATERA.*
2. *PATIOAN DAUDEN UMEEN TALDEAK ZERTAN JOKATZEN ARI DIREN BEGIRATZEN DUT.*
3. *GEHIEN GUSTATZEN ZAIDAN JOKOAN ARITZEN DIREN UMEENGANA HURBILTZEN NAIZ.*
4. *HAIEKIN JOLAS NAITEKEEN GALDETZEN DIET.*
5. *JOLASTEKO BAIMENA EMATEN BADIDATE, JOKO HORRETAN JOLASTEN DAKIDAN EGIAZTATZEN DUT ETA EZ BADAKIT, GALDETU EGITEN DUT. EZ DITUT ARAUAK NIK ASMATZEN!*
6. *UMEKIN JOLASEAN ARITZEN NAIZ DENBORA LIBREAN ZEHAR.*
7. *DENBORA LIBREA BUKATZEAN, HAIEKIN JOLASTEN UZTEAGATIK ESKERRAK EMATEN DIZKIET.*
8. *UMEAK AGURTZEN DITUT.*

(García eta Jorroto-tik moldatua, 2005)

11. eranskina: “Emozioak ikasteko ikusizko-laguntzak”



POZIK




TRISTE



KEZKATUTA



HARRITUTA



BELDURTUTA




HASERRE

(Chanca eta Trelles-etik moldatua, 2009)

12. eranskina: Emozioen termometroa

HASERREAREN TERMOMETROA



(Coto,2013; Barceló, 2015 -etik moldatua)

13. eranskina: “Boteredun txartelak”

Umearen interesgunea “*Historiaurreko gizakiak*” dira, hauen bizimodua, ohiturak, egiten zituzten lanak... oso gustuko eta ezagun dituelarik. Horrela, txartel hauek hurrengo helburua lortzeko sor daitezke: umeak ulertzea gai bat bere gustukoa izan arren, ezin dela denbora osoan horri buruz hitz egiten egon besteekin, gainontzekoen interesak ere kontuan hartu behar direlako.



Historiaurreko gizakiek gai desberdinei buruz hitz egiten dute:

Historiaurreko gizaki bakoitzak gehiago gustatzen zaion gai bat dauka, eta bakoitza bere gustukoa den gai horri buruz hitz egiten egongo litzateke beti. Baina, beti gai berdinari buruz hitz eginez gero, beste gizakiak aspertu egiten dira; beraz, historiaurreko gizakiek ez dute beti bakoitzak gustuko duen gaiari buruz hitz egiten, besteei gustatzen zaizkien arloei buruz ere aritzen dira hizketan.

Historiaurreko gizakiek badakite:

Gai bat asko gustatu arren, ezin da beti horri buruz hitz egin besteekin, hauek aspertzen direlako. Historiaurreko gizakiek bezala, gai ezberdinei buruz hitz egin ezazu beste pertsonekin, elkarriketa-gaiak guztientzako interesgarriak izateko.

(Smith et al.-etik moldatua, 2005)